

227. zk.

Bigarren aroa

Apirilak 15
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Gaztea

Eli Olaskoaga
sexologoa gaztetxoan
inguruan mintzo da



Elkarrizketa

Iñaki Ceberio
udal liburuzaina



Sonia Bañeza, transexuala

“Berriro jaio izan banintz
bezala sentitzen naiz”

- 3 Irungo historia, lehenbizikoz liburu batean
- 6 Opilak, tradizioz gozoena
- 8 Kirolak. Lopez Ufarte Futbol Lehiaketa
- 9 Kirolak. Santiagorak, sasoi berria
- 10 Gatronomia. Euskal sukaldaritzaren historia (II)
- 11 Haurren Leihoa. Txingudi Ikastola
- 12 Gazteen Lanak. San Vicente de Paul
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Kultur agenda

www.irunero.com

Sar
zaitez
web orrian



Segurua
Eraginkorra
Erosoa
Didaktikoa
Dibertigarria
Majikoa
Ekologikoa
Paregabea
Biologikoa

Tartufa

JOSTAILUAK



Fermin Calbetón, 15. IRUN. 943 630 673





Xabier Kerexeta

Zuek nola idatziko zenukete: Udaletxearen Udaltzaingoko ordezkaria, Udaletxeko Udaltzaingoko ordezkaria, Udaletxearen Udaltzaingoaren ordezkaria, Udaletxeko Udaltzaingoren ordezkaria? Argudia zenezakete, bai, Udaletxea berez udalaren (udaleko?) etxea, egoitza dela, ez erakundea bera, eta Udal Udaltzaingo esapidea errepikakor samarra denez, zuzenean Udaltzaingo hitza aski genukeela, eta orduan gaitz erdi, literalki gaitz erdi. Hau guztia gertatzen da norbaitek lehenago erdaraz policía local del ayuntamiento idatzi duelako, eta euskaldunok hitzez hitz itzuli behar, omen. Eta nola gure erdaraz casa consistorial ez den esaten, erdarazko ayuntamiento hitzaren zentzu biak nahasi eta euskaraz udaletxea jarri, udal behar den tokian. Erdaraz, berriz, ez dugu idazten policía municipal del municipio, policía local de la localidad edo policía local de la casa consistorial, non eta, azken kasu ho-

KK

netan behinik behin, ez baldin badigu gainez egiten bertsolari senak erdaraz ere.

Ez dezagun esajeratu: euskara ez dugu oso txukuna, baina gehienetan erdaraz ere ez dugu claro, concreto y conciso egiten. Correcto izatearekin aski dugu. Baina euskaraz hori ere ez dugu lortzen. Eta ez naiz -(e)ko ala -(a)ren atzizkiak erabiltzean sortu ohi zaizkigun zalantzez ari; areago, horiek hizkuntza bizia dugun seinaleztat har genitzake. Hori bai, Denadelako Denadelakoaren ordezkariaK jarriko genuke hau irakurtzen ari garen guztiok, ondorengo aditza "adierazten du" balitz. Bai ote? San Juan Harria inguruko tabernetan dagoen testuan (lehenago erdaraz, jakina, Irún eta guzti) ergatiborik gabe agertzen da. Taberna batean norbaitek boligrafoz K jarri badu ere, hila-beteak dira hortxe segitzen dutela kartekek lehenago lepotik burua.

Zorionez ordutegien polemika kontopontzeko bidean dago. Zorionez, batetik, adostasunetara iristea ona izaten delako, eta bestetik, zorte pixka batekin kartelak noizbait kenduko dituztelako. Nekez, ordea, erdaraz inoiz ametituko ez genukeen akatsa zuzentzeko.

Gauza hauek uzten naute Urdanibia plazako obregatik Santa Elena kalea bezala: MUZTUTA.

Irun atzo Irun gaur

Adiskidetasunaren Kasi-
noa atzo

La Salle San
Martzial atzo

San Juan Harria
plaza gaur



IUA: 38417



XX. mendearen hasiera aldera egindako argazkian Remi Salisek 1860an eraiki zuen etxea agertzen da. Vicenta Olazabal zen jabea eta bertan zeuden Adiskidetasunaren Kasinoa eta Círculo Liberal Monárquico-aren egoitza. Gerra Zibilaren hasieran Irun erre zenean (1936an) zeharo kiskalita geratu zen eraikina. Garai hartan La Salleko Anaien Kristau Eskola bertan zegoen. Ondorengo urteetan bere instalazioak zabaltzen hasi zen eta azkenean orubea eraikinez inguratu zuten. Halaxe mantendu zen, harik eta 2006an eraitsi zuten

arte. Bigarren irudian, 2003koan, ikastetxearen zati bat azaltzen da.

Hiru argazkietan agertzen den elementu bakarra San Juan Harria da. Harri hori 1564an jarri zuten. Denboraren joanean, Irun hiriaren nortasun burujabearen ikur izateko sortutako zutabearen jatorriari buruz hainbat azalpen eman da; esaterako, irundarrek frantsesen erasoaldien aurrean herria babesteko erakutsi zuten ausardiaren ohoretan altxa zutela. Era berean, Arantzate eta Urdanibiko jaunaren ohoretan eraiki zela ere esan izan da.

Irunero

Erredakzioa eta
maketazioa:

Ana Grijalba
agrijalba@irunero.com

Kirolak: Naiara Hernandez
Lekuona

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com



Irun ezberdina da

Sagrario Arrizabalagak eta Lourdes Odriozolak *Historia de Irun* liburura historiaurretik gaur egunera arteko kondaira ekarri dute.

Egileen aburuz, mugan egoteak egin du Irun ezberdin, pentsaera berrien jarioek igarotzen zuten atea izaki.



Ezkerretik hasita, Sagrario Arrizabalaga, Jose Antonio Santano eta Lourdes Odriozola.

Frantzisko Gaintza, Serapio Múgica eta Luis de Urantz izan dira Irungo historiaren inguruan idatzi duten egileak. Lan hauek, ordea, partzialak dira. Obra berriena Aitor Pucherena da, non gertaera nagusien panoramika jasotzen baitu. "Izen horiei Sagrario Arrizabalagarena eta Lourdes Odriozolarena gehitu behar zaie orain", esan zuen Jose Antonio Santano Irungo alkateak. 2000. urtean Udalak lehiaketa bidez enkargu potoloa esleitu zien eta berriki plazaratutako lana da emaitza, alkatearen esanetan "gure historia aberats eta konplexua" laburbiltzen duena. "Europako historiak markatutako historia da gurea, baina, aldi berean, Bidasoko txoko honetan gertatutakoek ere".

Bost atal

Liburua bost ataletan banatuta dago. Ikerketak historiaurrea du abiapuntu

eta lurraldearen inguruko lehenengo urratsak jorrotzen dira. Ondoren, erromatarren garaiko hiria da hizpide. Liburu klasikoetara eta indusketa arkeologikoetara jotzen dute, Oiasoren lehen erreferentzien bila. Erdi Aroari dagokion atala XV. mendera arte luzatzen da, eta hortik aurrera Aro Modernoa hasten, Hondarribiarendandiko independentzia lortzeko borroka hari nagusia izaki. Aro Garaikidea abian hasten da 1766an, askatasuna erdietsi zuen urtean, hain zuzen ere. Sagrario Arrizabalagak auziak XV. mendearen erdi aldera hasi zirela azaldu zuen, "Irun indar handiko herria zelako eta independentzia nahi zuelako kosta ahala kosta. Gatazkak 1840ra arte iraun zuen, hots, 300 urte".

Lourdes Odriozolak Irunen Gipuzkoako artxiborik jorienetakoa dugula azpimarratu zuen. "Probintziako herri gutxitan egin daiteke horrelako lan bat", erro-

matarren garaitik gaur egunera arte.

Irun is different

Historia instituzionalaz harago, egileek alderdi sozialari ere garrantzia eman diote. Ezberdinak garela da ondorio nagusietako bat. "Irunen kokalekuak baldintzatu du bere historia: Europako atea izan zen, baina beste merkatu mota batzuetakoena ere bai. Hala, irekieraren aldeko ideiak gailentzen ziren Irunen eta Donostian; Gipuzkoan, ordea, kontserbatzaileak ziren, foruen defendatzaileak". Mugan egoteagatik jende askoren pasabide eta helmuga izan dela nabarmendu zuten. "Ereugarria izan da nola jakin izan duen egokitzen eta hiriaren onurako izan litekeena hartzen". Eta hondamendia gertatu denean? "Hori askotan gertatu da Erdi Aroz geroztik, baina bere errautsetatik berpizteko bidea aurkitu du beti".

Jada salgai

Historia de Irun liburuak 573 orrialde ditu eta 750 ale inprimatu dituzte. Lana salgai dago jada SAC-HAZen, Udal Artxiboan, Turismo Bulegoan eta Oiaso Museon. Prezioa: 25 €



T. 678 617 907
mgrotulos@gmail.com
Pedro Manuel
Aristegui kalea, 12
IRUN

Mugaz gaindiko aholkularitza

MyL mugan
aholkulariak

Ficoba
Iparralde
hiribidea, 43.
IRUN

t 943 537 720
f 943 116 014
m 649 014 096

www.mylmugan.com

«Liburutegiak beharrezkoak dira gizarteak aurrera egin dezan»

Liburuaren eguna bueltan da berriz ere. Apirilaren 23a aitzakia, Irunerok Iñaki Ceberio Ikust-Alaiko liburuteginarekin solasaldia izan du. Liburutegia liburuen biltegi huts ez dela defendatzen du eta “memoria, ikerketa, irakaskuntza, kultura, ikaskuntza eta jendearen topaleku” dela azpimarratzen du.

Iñaki Ceberio, Irungo udal liburutegina



- Zeintzuk dira azken hilabeteetan maileguz gehien erman diren liburu edo DVDak?

Helduen artean 'Cincuenta sombras de Grey', 'El tiempo entre costuras', 'Dime quién soy' eta 'Didaviación' DVDa. Eta haurren artean, 'Las aventuras de Tintín' eta 'Jeinuen hazia'

- Eta zer eskatzen du jendeak?

Batez ere argitaratzen diren liburu berriak edo komunikabideetan entzuten dituzten gauzak; adibidez, Babelian.

- Nola ospatuko da liburuaren eguna Ikust Alaian?

Apirilaren 2an Quixotearen eta Mariasun Landaren eleberraren irakurketa antolatu

genuen haurrentzako. Horretaz gain, helduentzako ipuin kontaketa ere izango dugu eta liburu azoka bat ospatuko dugu Zabaltza Plazan hilaren 23an. Hemen, liburutegian, urtero egiten dugun Quixotearen irakurketa egingo dugu eta nahi duenak izena eman dezake parte hartzeko.

- Jendea etortzen da liburutegira?

Bai, baina beste modu batean. Azken 3-4 urteetan ez, baina duela bizpahiru urte zazpi eta hamaika urte bitarteko umeak liburutegitik desagertu egin ziren, ez ziren lanak egitera hona etortzen. Ez dakigu zergatik izan zen hori, baina duela hiru urtetik hona hau-

rrak bueltatu dira liburutegira lanak egitera, taldeka geratzeko, Internetera konektatzera... Baliteke gurasoek konturatu izana umeek eskola eta klase partikularrez beste leku batzuetan ere egon behar dutela.

- Zein da liburutegiaren lekua gaur egungo gizarteetan?

Zer da liburutegia? Hori da galdera. Jende askok liburutegia biltegi bat dela uste du, eta ezin daitezke erratuagorik izan. Egia da Interneten, Googlen, gauza pila aurki daitezkeela, baina zenbait gauza bakarrik liburutegian aurki daiteke. Eman behar zaion garrantzia ez zaio ematen liburutegiari, herrian dagoen

“Sareak asko lagundu du, ez da etsaia izan.

Googlen badaude gauza asko, baina liburutegietan

Interneten ez dagoen

gauza asko ere bada”



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



Liburutegia zifratan (2013):

57.805 DOKUMENTU :

Liburuak: %91,96

Ikus-entzunezkoak: %4,76

Dokumentu elektronikoak: %0,62

Audio erregistroak: %2,47

Aldizkako argitalpenak:

459 titulu: 451 aldizkari eta 8 egunkari.

BISITA KOPURUA: 137.733

MAILEGU ZERBITZUA:

Guztira: 36.318 mailegu

Liburuak: 29.387 (%80,9)

Ikus-entzunezkoak: 6.007 (%16,5)

Audioak: 732 (%2,0)

Baliabide elektronikoak: 174 (%0,5)



Ikust-Alaia liburutegia.

espaziorik garrantzitsuena da. Ikerketa gela, ikasteko espazioa, pertsonekin elkartzeko topalekua, irakasteko gunea... Gizartean leku berezi bat behar du, batez ere gizarteak berak aurrera egin dezan beharrezkoa baita.

- Zergatik uste duzu hori horrela dela?

Tradizio falta dago. Katalunian, adibidez, liburutegiek berebiziko lekua daukate eta jendeak asko estimatzen ditu. Estatu Batuetako pelikula mordotan liburutegiak agertzen dira; Estatuan, aldiz, zenbatetan ikusi dugu film batean liburutegi bat? Hori esanguratsua da.

- Hortaz, garrantzi gehiago eman beharko genioke...

Liburutegiak hainbat alderdi sozial eta hezigarri ditu; besteak beste, auzi digitalaren aurka egiteko leku aproposa da. Elkartzeko eta edozer gauza sortzeko lekua da.

- Hogeitabost urte daramazu Ikust Alaian... Nola aldatu dira erabiltzaileen ohiturak denboran zehar?

Asko aldatu dira, baina eskaintzaren araberakoak izan dira. Ni 1988. urtean hasi nintzen hemen lanean eta jadanik urte luze bat zeraman liburutegiak martxan. Hasieran, lehenengo solairua zegoen bakarrik erabilgarri eta jendeak espazio gehiago eskatzen zuen. Orain eraikin osoa dago hiritarren esku eta beste gauza batzuk eskatzen dizkigute.

- Berritze prozesu etengabea zabiltzate, orduan?

Liburutegiko azpiegiturak konpontzeaz eta berritzeaz gain, produktu onak izan behar ditugu eta egunero gauza desberdinen bat eskaintzeko beharrea gaude pertsonak erakartzeko. Gure lana datorren horri jakin-mina piztea da, eta horretarako, adibidez, ikastaroak antolatzen ditugu. Irakaskuntza arloan gero eta lan gehiago egiten ari gara. Gainera, liburutegiak Facebooken, twitterren eta Youtuben perfilak ditu. Hortaz, ez gara biltegi bat bihurtuko, sorkuntzarako leku berezi bat baizik.

- Internet aipatuta duzu: nola eragin du liburutegiarengan?

Sareak asko lagundu du, ez da etsaia izan. Googlen badaude gauza asko, baina liburutegietan Interneten ez dagoen gauza asko ere bada. Etorkizuna bide horretatik doa eta ziur nago moldatu egingo dela gure beharretara. Ez ditugu sareak eskaintzen dizkigun aukerak galdu behar.

- Liburu elektronikoren bat ikusiko al dugu liburutegian?

Oraingoz, egile-eskubideak direla eta, ezin dugu liburu lektronikoen mailegurik eskaini liburutegian.

- Eta zuk, liburu tradizionala ala elektronikoa?

Ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik. Nik biez gozatzen dut eta biak erabili behar direla defendatzen dut.

Joseba Zubialde

BAINU

BALIA EZAZU 700 € ARTEKO LAGUNTZA OFIZIALA

Aldatu zure bainera dutxa batengatik

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.

¡Guztia 2 egunetan!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pelegrin de Uránzu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun

943 615 184 - 687 572 920

bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652

BAINU

San Markoseko opilak, tradiziorik gozoena

Haurrek sekulako ilusioz espero dute San Markos eguna opila jasotzeko. Amabixientzako ere egun pozgarria da, bereziki beren haur besoetakoei opari gozoa emateko unea. Eta gainontzeko-entzat, zer nolako xarma du apirilaren 25ak? Txikitako oroitzapenak gogoratzeko eta, jakina, bizkotxoa dastatzeko parada. Halaxe, aurten ere tradizioari eutsiko diote bidasoarrek. Hona jatorriari buruzko azalpen xumea.



Irun udal artxiboa: 27453

Ikasleak eta lekaimeak, San Markos eguna ospatzen.

Antzina Irun-Iranzun prozesioak egiten ziren, batzuetan *goiko mendietan* eta bestetan *beheko mendietan*. Hauen artean jada desagertu den Olaberria auzoko San Antongo baseliza zegoen. Prozesioetan apaizek parte hartzen zuten eta herritar talde batek salbak egiteko armak eramaten zituen. Tradizio hau lehenengo karlistada arte mantendu zen. Handik aurrera prozesioen helburua soroak bedeinkatzea izan zen. Ibilbidean zehar, hamaiketako egiteko ordua iritsita, jarraigoak baserriren batean geldialdi bat egiten zuten eta bertan apaizei zein agintariei sardeskaz jateko moduko otordua eskaintzen zitzaion. Gainontzekoek, berriz, labean erretako ogi-opil bat bina arrautzarekin besterik ez zuten ahoratzen. Prozesio hura ere desagertu zen, baina opilaren ohitura mantendu zen. Herriko okindegietan saltzen ziren, arrautzen kopurua aukeran jarrita. Baliteke *opila* hitzaren jatorria *ogi pila* izatea, alegia, ogizko tarta.

Lehenengo opil gozoa

Esatenenez, behin dama bati bere alaba besoetakoari oparitzeko, ogiaren ordez bizkotxoa erabiltzea bururatu zitzaion. Ideiak hainbesteko arrakasta izan zuten ezen orduetik gaurdaino dirauen tradizioa baita. Bizkotzoko lehenengo opil hura Larretxi kalean zegoen Elgorriaga gozotegian egin omen zuten, eskuz eragindako makinez. Opilak apaintzeko ipintzen diren arrautza gorrien jatorria establezimendu horretan bertan bilatu beha da. Paco Elgorriaga gozogilearen espezialitateetako bat almendra azukregorrituak ziren. Behin, kobrezko lapikoan itsasirik geratu ziren hondakinak kendu ahal izateko ura berotu zuten bertan. Orduan, langile bati bururatu zitzaion irakiten ari zen ur hartan opiletan ipintzeko prest zituzten arrautzak egostea. Emaitzak harridura sortu zuen lantegiko gozogileen artean, arrosa kolore polit batez tindatuak geratu zirelako.

Errezeta

OSAGIAK

- 225 g gurin
- 282 g azukre
- Limoi-birindura
- Gatz pixka bat
- 115 g almendra-hauts
- Goilarakada erdi legamia
- 200 g irin
- 3 arrautza
- Goilarakada laurden banilla-esentzia.
- Gozokiak eta apaingarriak



PRESTAKETA

24 cmko molde batean irin eta gurin pixka bat zabaldu, oreka ez itsasteko. Gurina azukrearekin nahastu eta limoi-birindura, gatz, almendra eta legamia gehitu. Goxo nahastu, hobe goilara batez. Arrautza bat eta irinaren heren bat gehitu eta nahastu. Gauza bera egin beste bi aldiz. Labean 30 minutu izan (175 gradutan).

APAINTEKO

Lapiko batean 25 g azukre eta 50 ml ur berotu irakin arte. Azukrea urtzen denean banilla erantsi. Opila gainetik pintatzeko erabili. Azkenik, ipini koloretako fideoak, gozokiak, arrautza egosiak eta, nola ez, txittoa!



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiliar Jiu Jitsu

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA

Sonia Bañeza, transexuala

“Emakume bezala gizartean integratua sentitzen naiz orain”

Sonia Carlosen gorputzean harrapatuta bizi zen. Bide luze eta akigarri baten buruan, hona emakumea, aske, integratua eta hein handi batean, onartua. “Berriro jaio izan banintz bezala sentitzen naiz orain”.

Orain dela hiru urte bere istorioa Iruneroren orriotara ekarri genuen. Orduan Carlosek Sonia bilakatzeko prozesua berriki abiatua zuen. Emakume sentitzetik izatera dagoen ibilbidea egitera deliberatu zen. “Gogorra izan da; lortuko ez nuela ere pentsatu izan dut”. Zailtasun fisikoak, psikologikoak eta sozialak gora behera, hona emakume zoriontsu bat.

Itxuraz aldatu eta integratu

Harrotasunez erakusten du bere nortasun agiri berria, eskuratzea “oso inportantea” izan baita. Ezinbestekoa zen ziurtagiria lortzeko, bi urtez tratamendu fisiko zein psikologikoa jarraitu behar izan zuen. “Agudo eman zidaten, nire nahia emakume izatea zela oso argi neulakako”.

Sexuz aldatzeko ebakuntzaren zein hormonon emaitzak nabariak dira, oraingo gorputza eta ahotsa duela hiru urtekoekin alderatzen baditugu. “Bai, jende askok ez nau ezagutzen”. Itxuraz gain, Soniaren esanetan “berebiziko garrantzia du gizartean eta lan arloan integratua sentitzeak. Gizartearen sektore batek beti baztertuko nau; baina, oro har, jendeak onartzen



nau, barruan sentitzen duzunaren aurka borrokatzerik ez dagoela ulertzen delako. Ez dit apetak eman emakume izan behar dudala”.

Biderik malkartsuena aukeratu du; alegia, hasieratik egizale jokatu du, izkutatu gabe, bere ingurutik ihesi egin gabe. Jarrera horrekin “halako egoerak bizi dituztenei laguntzea izan dut xede;

onargarritasunaren bidea zabaltea”.

Inguru soziala mantentzearekin batera lanari ere lotu zaio normaltasunez. Pintura eta dekorazioa dira bere espezialitateak. Halere, tarteka honelako galdera bitxiak egiten dizkiote: *Baina, zuk ba al dakizu pintatzen?* Atzera begirakoa egitean, ordea, halako itaunak anekdota hutsa dira. “Oso zoriontsua naiz. Prozesuak muga egoeraraino eraman nau, baina orain berriro jaio izan banintz bezala sentitzen naiz”.

Kirolaren alorreko lorpenak

Sonia oso kirolaria da eta aurrera darrai alor horretako proiektuekin. Otsailean Andeetan ibili zen, modu tradizionalean. “Ez nintzen tontor nagusira igo hotzarengatik eta haizearengatik, baina 6.200 metrora iritsi nintzen”.

Egun hauetan Santiago Bidean dabil, bere txakurrek lagunduta, hilabetean burutzeko asmoz.



Argentinak Andeetara Irungo bandera eraman zuen.

Emakume izateko prozesua amaitu osteko argazkia.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Enezala munduan, Kizilari, Desdola nueve metros, restapasañdo, La Barastua, Ocarria, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA

 txingudionline.com

restapasañdo, La Barastua, Ocarria, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Enezala munduan, Kizilari, Desdola nueve metros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuboga, Kirolak, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Enezala munduan, Kizilari, Desdola nueve metros, restapasañdo, La Barastua, Ocarria, Falso de cine, Historias del Bidasoa

XXXII Torneo Ciudad de Irun López Ufarte
Irungo Hiria Lehiaketa López Ufarte

Campo: San José Obrero (IRUN)

2014
 APirilak
 19, 20, 21
 ABRIl

SABADO, 19 DE ABRIL
 10:30 C.D. Dunboa-Eguzki - Real Zaragoza
 11:15 Real Sociedad - Sel. Guipuzcoana
 12:30 Racing de Santander - Deportivo Alavés
 16:30 Athletic Club - C.D. Dunboa-Eguzki
 17:15 Real Zaragoza - Antiguoko K.E.
 18:30 Real Sociedad - Racing de Santander

DOMINGO, 20 DE ABRIL
 10:00 Sel. Guipuzcoana - Deportivo Alavés
 11:15 Athletic Club - Real Zaragoza
 12:30 Antiguoko K.E. - C.D. Dunboa-Eguzki
 16:00 Deportivo Alavés - Real Sociedad
 17:15 Racing de Santander - Sel. Guipuzcoana
 18:30 Antiguoko K.E. - Athletic Club

LUNES, 21 DE ABRIL
 9:00 SEPTIMO Y OCTAVO PUESTO
 10:00 QUINTO Y SEXTO PUESTO
 11:00 TERCER Y CUARTO PUESTO
 12:30 FINAL
 14:00 ENTREGA DE PREMIOS






Goian, aurtengo edizioan parte hartuko duten Dunboa-Eguzkiko jokalaria. Behean, Dunboa-Eguzkiko jokalaria, XXXI. edizioko saria jasotzen.

Dunboa-Eguzki Kirol Klubak urtero antolatzen duen lehiaketaren XXXII. edizioa izango da aurtengoa. , Apirilaren 19tik 21era, Estatuko futbolari gazte hoberenen jokoa gertutik ikusteko aukera izango dute Larreaundiko futbol zelaira hurbiltzen diren zaleek.

Lopez Ufarte Lehiaketa, oinarri-futbolaren festa handia

Irungo futbol txapelketa garrantzitsuenetakoa iristear da. Aste Santuko prozesioekin batera, oinarri-futboleko lehiaketarik garrantzitsuena dator. Urduritasuna eta poztasuna agerikoak dira jada Dunboa-Eguzkiko jokalaria gazteen aurpegietan. Izan ere, Alaves, Zaragoza, Athletic, Real, Gipuzkoako selekzioa, Antiguoko eta Racing de Santander talde indartsuak aurrez-aurre izatea ez da gauza erraza. Hala ere, Eduardo Pagolaren mutilak prest daude euren atea hortzez eta haginez defendatzeko. Xabi Pérez eta Nestor Legorburu aurtengo Lopez Ufarte lehiaketan parte hartuko duten jokalariren artean daude eta berdegunera salto egiteko irrikitan daude. "Lehiaketa hau jokatzeko aukera izatea sari handia da" dio Xabi Pérezek. Nestorren zat, berriz, txikitako ametsa betetzea da. "Urtero aitarekin etortzen nintzen parti-

duak ikustera, eta orain lehiaketako jokalarietako bat izatea... izugarria da".

Ilusioa nagusi

Eduardo Pagola entrenatzailea lehiaketa bat baino gehiagotan izandakoa da. Hala ere, ilusioa estreinuaren berdina da. "Nahiz eta entrenatzaile bezala Lopez Ufarte Lehiaketan askotan parte hartu, urtero txapelketa noiz iritsiko zain egoten naiz". Gainera, giza-esfortzu handia eskatzen du txapelketa honek. Ricardo Gómez presidentearen esanetan, "urtero 50-60 boluntario ditugu. Tabernan lan egiten duen jendea, sarreraren kontua kontrolatzen duena, baita antolakuntzan aritzen dena ere".

Oinarri-futbolaren arrakasta

Lopez Ufarte Lehiaketak futbolzale amorratu ugari elkartzen ditu. "Urtero, 4.000-5.000 bat ikusle elkartzen dira lehiaketak

eskaintzen duen oinarri-futbolaz gozatzeraz". Ez da harrizkoa, nazioarteko jokalaria ezagun ugari irungo lehiaketan eman baitzituzten euren lehendabiziko urratsak. Adibidez, Tiago Alcántara, Bojan eta Giovanni Dos Santos jokalariek zapaldu dute Irungo berdegunea. Hala ere, ez dira bakarrak izan. "Gaur egun, Bartzelonaren hirugarren atezaina den Oier Olazabalek ere lehiaketan jokatu eta gurekin klubean izateko aukera izan genuen" gogoratzen du Dunboa-Eguzkiko entrenatzaileak.



Garikoitz Pagola, 2013ko Irungo jokalaririk onena.

Garai txarrak, iraganaren oroitzapen

Lopez Ufarte Lehiaketak ere nabari izan du krisi ekonomia. Aurrekontuaren murrizketak zirela eta, 2012an bertan behera utzi behar izan zuten lehiaketa. Presidenteak gogoan du oraindik edizio latz hura. "Aste Santuko ekimen oso garrantzitsua da lehiaketa hau, eta bera gabe zerbait falta zitzaigula sentitu ge-

nuen gutako batek baino gehiagok". Nahiz eta iraganen momentu zailak bizi, Dunboa-Eguzki Kirol Klubak gogotsu begiratzen dio etorkizunari. XXXII. edizio honetan, "gure gazteak bizitza osorako oroimen polita izatea da gure helburu nagusia".



Santiagoarrak K. Eko kideak Euskadiko Maratoi Txapeldun izendatu ondoren.

Santiagoarrak, erronka berrien bila

Irungo piraguismo taldeak martxoan eman zion ongietorria denboraldi berriari. Sevillan antolatutako Espainiako Neguko Txapelketan, primeran aritu ziren Santiagoarrak taldeko neska-mutilak. Gainera, Euskadiko Maratoiaren Txapeldun izendatu berri da taldea. Hurrengo erronka garrantzitsua Espainiako Maratoi Txapelketaren eskutik etorriko da. Nahiz eta edozein kirolarientzat emaitzak eta dominak garrantzitsuak izan, lagunartekotasunak berebiziko garrantzia du klubeko kideentzat.

Arratsaldeko bostak dira eta Santiagoarrak K. Eko egoitzan etengabeak dira piraguisen eta entrenatzaileen joan-etorriak. Bertan, Olatz Zabala piraguisa eta entrenatzailearekin eta Aitor Gorrotxategi eta Telmo Fernández piraguisekin egiten dugu topo. Etorkizun handiko gazte hauek datorren Espainiako Txapelketari begira daude. "Gogor lan eginez gero, K-1 eta K-4 kategorietan domina lortzeko aukerak ditugu" diote Espainiako Neguko Txapelketan 3. eta 4. izandako Aitorrek eta Telmok. Olatz Zabalaren erronka ere ez da txikia. "Espainiako Maratoi Txapelketan, Europako Txapelketarako sailkapena lortu nahi nuke K-1 eta K-2 kategorietan". Gazte kategorian, berriz, Oihan Sayar eta Igor Nietoren K-2a indartsu dabil. Neskei dagokienez, Tania Prol eta Itziar Campo dira klubaren neska indartsuak. Bestalde, Ania Perez C-1 kategorian lehiatuko da. Orain dela gutxi arte, gizonezkoentzat soilik gor-

detako kategoria zen hau. Hala ere, pixkanaka, emakumeek lekua egin dute. "Kanoan aritzeak asko nekatzen du, baina progresio honekin jarraituz gero Aniak etorkizun ikaragarria du". Ur bizietako piraguisak, berriz, Junior eta 23 urte azpiko Australiako Munduko Txapelketan lehiatuko dira.

Piraguismoaren ohitura luzea

Olatzek, Aitorrek eta Telmok berezko dute piraguismoarekiko maitasuna. Telmok, adibidez, aitonaren eskutik eman zituen lehendabiziko palakadak. "Aitonak arrau-nean egiteko ohitura izan du betidanik eta, 7 urte nituela, probatzeko esan zidan. Handik bi egunetara, ikastaroetan izena eman nuen, eta gaurdaino". Klubean dauden piragua gehienak egin eta konpondu ere ohi ditu Telmoren aitona. Aitor eta Olatzen kasuan, pasioa gurasoengandik datorkie. "Haiek ere elkarrekin entrenatzen dute".



Ezkerretik eskuinera, Telmo Fernández, Olatz Zabala eta Aitor Gorrotxategi Santiagoarrak K. Eko piraguisa gazteak. Eskuinean, Telmo Fernández eta Olatz Zabala (atzean).



Lagunartekotasuna nagusi

Taldean giro oso ona dago eta taldekideek elkarri laguntzen diote. "Telmo eta Aitor, adibidez, oso taldekide onak dira" azpimarratzen du Olatzek. "Umilak dira eta, euren probak ondo egiteaz gain, gainontzeko kideak animatzeaz eta laguntzeaz arduratzen dira". Elkarrekin pasatzen dituzten ordu guztiek ere familia-sentimendu hori indartu dute.

Erakundeek ahaztutako kirola

Astean 6 egunetan entrenatzen duten gazte hauen emaitzak bikainak izan arren,

piraguisak ez dute, ez babeslerik, ez diru-laguntzarik jasotzen. "Urtetik urtera gero eta palista hobeak ditugu; baina, gure aurrekontu murrizta dela eta, murriztu behar izan dugu zenbait txapelketara doazen piraguisen kopurua. Bidegabekoa da". Olatz Zabalak kirolari gazte hauentzat etorkizun hobea eskatzen du. "Diru-laguntzarik gabe, Aitor eta Telmo bezalako etorkizun handiko piraguisak oso bide gogorra dute aurretik. Ezinbestekoa da erakundeek piraguisa gazteen lana eta esfortzua aitortzea".

Euskal sukaldaritzaren historia

Erdi Arotik XX. mendera: euskal sukaldaritza indartzen

Aro garrantzitsua izan zen hau euskal sukaldaritza finkatzeko.

Erromatarren garaian utzi genuen euskal sukaldaritzaren ibilbidearen inguruan idazten ari garen istorio honen lehen kapitulua. Erromatarren garaitik Erdi Aroa goaz gaurkoan, eta bide laburra egingo dugu XX.mendera iritsi arte.

Erdi Aroan bizi zen egoera sozialak eragina izan zuen euskaldunen elikagaien kulturean. Produktu asko luxuzko bihurtu ziren herritar xumearentzat. Horrela, ogia zen dietaren oinarria; honen eskasiari aurre egiteko erabiltzen ziren babak, dilistak, txitxirioak edo ilarrak. Haragia luxuzko elikagaia zen eta soilik jai-egunetan eta Donostiako foruek ezarritako pribilegioen arabera kontsumitzen zen; horregatik, arrainak hartu zuen protagonismoa garai haietan.

Errenazimendu garaian euskaldunen sukaldaritza ohituretan berrikuntzak eman ziren: Ameriketatik ekarritako elikagai berriek, elikadurarako aukera berriak eskaini zituzten; hiri eta herrien sorrerak biztanleen arteko elikagaien banaketa erraztea ekarri zuen; ordura arte biziraupeneko sukaldaritza izan zena izaera propioa duen sukaldaritza bihurtu zen.

Industrializazioak berarekin ekarri zuen bi euskal



sukaldaritza finkatzea: biziraupeneko sukaldaritza, landa-guneetan eta langileen artean lantzen zena; eta sukaldaritza kultua, burgesiari lotua eta lehenengo jatetxeen agerpenarekin zerikusi handia izan zuena.

XIX. mende amaieran euskal sukaldaritza tradizionala finkatzen hasi zen. Horretan garrantzia handia izan zuten 1830. urtetik aurrera agertzen hasi ziren euskal sukaldaritzaren lehen errezetiliburuek. Elikagaiei dagokienez, honako hauek dira presentziarik handiena zutenak sukaldeetan:

dilistak, babak, txitxirioak, babarrunak, bakailaoa, patata-tortilla, olio eta sagarra.

Eta beti esaten dugun bezala, gozatu euskal sukaldaritzaren historiarekin, gozatu gastronomiarekin eta gozatu bizitzarekin. On egin!

GASTROFESTA

Oraitz Garcia

gastrofesta.com

Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

**JOSTAILU GUZTIAK:
MODAKOAK ETA KLASIKOAK
SALNEURRI MERKEENAK**

Prim. 59. Tel: 943 455300 Donostia
Letxunbarro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko silitak
- Sehaskak

**Haur kotxeak
GIPUZKOAKO
ERAKUSKETARIK HANDIENA**

Easo. 51. Tel: 943 470244 Donostia
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



**Zure jaioberria
zaintzen dugu**

Txingudi Ikastola HH-LH

Txingudi Ikastolak berriro lortu du “Eskola jasangarria ziurtagiria”

Txingudi Ikastolak “Eskola Jasangarria” Ziurtagiria berrirea lortu du beste hiru urteko iraupenez. Eusko Jaurlaritzak ematen duen errokonozimendu hau lehen aldiz 2009an eskuratu zuen Txingudik. Martxoan ikastetxeak bandera berria jaso zuen, iraunkortasunaren eta ingurumenaren alde egindako lanaren aitortpen gisa. Lorpena ospatzeko, hilaren 10etik 14ra bitartean hainbat ospakizun antolatu zituzten.

- Zuhaitz baten landaketa.
- Sakelako telefono zaharren bilketa Jane Goodall Institutuak bultzatutako “Mugi zaitetz oihanaren alde” kanpainaren barruan.
- Ikastolako Eko-araudia sortzea.
- Beñat Lizaso gazteari laguntzeko plastikozko tapoien bilketa solidarioa.
- Ikastolako belar guneen errekupeazioa bultzatzeko landare eta belar haziak ereitea.
- Jasangarrtasuna gaia hartuta, hainbat bertso sortzea.

Ziurtagiria Eskolako Agenda 21 programaren barruan eskuratutako errokonozimendua da. 2003. urteaz geroztik Ikastolak ikastetxearen jasangarritasunerako eta kalitaterako programa honetan parte hartzen du.



BERTSOAK

Lehen zikloko / haurrek lizar bat sartu dute Txingudira, natura zaintzen / eta maitatzen ongi dakigun tokira: argindarraren / zein paperaren erabilera, neurria; txorrota itxi, / zaborra jaso, horiek denak, guztira, Ama Lurrari / eusten lagutzen diguten sustraiak dira. (LH3)

Murgildu gara / konpromisoak zintzo hartzeko ekintzan, ingurunea / kezka baitugu eskolan eta bizitzan. Eta idatzi / egin ditugu dekalogo baten gisan haizeak gure / hitzak sekula santan eraman ez ditzan, naturarekin / ezin baitugu ajolagabeak izan. (LH 4)




Eusko Jaurlaritzak Txingudi Ikastolari eman dion bandera sarreran ipini dute jada.

Argazkiotan, ziurtagiria jaso izana ospatzeko antolatutako jarduerak.

BAKAILAOA DASTA EZAZU



San Vicente BHI

BATZUETAN GOOGLE+
ERABILTZAILEAK IKUSTEN DITUT

Pixkanaka Google lortzen ari da bere sare sozialaren bitartez harremanak sor ditzagun, nahiz eta aitortu beharra dagoen ederki kostatzen ari zaiola.

2.0 webaren desiratuena izaten hasi zen arren, eta gonbidapenetara mugatua (zerbait desiragarri bihurtzeko, mugatzea baino hoberik ez!) bazegoen ere, berehala mantsotu zen, eta kontsumo gutxienerako sareetako bat bilakatu. Izan ere, kontsumoa gero eta gutxiago zen, harik eta 3' hileko izanda hondoa jo zuen arte.

Hau guzti hau irauli nahian, berez G+ zerbitzu onak hobetzearen alde egin du Googlek, eta, esaterako, Hangouts tresnari esker bideokonferentzia zerbitzu handinahiak lur jota utzi ditu. Gure negozioen geokokapena baimentzen duen Google Places zerbitzu zahararen kudeaketa-sistema ere hobetu du. Areago, emaitza horietan bere sarearekin loturiko eduki eta adierazleak ere txertatu ditu, besteak beste autoritate-kontzeptua indartzearen.

Google+ bixi-bixia da, arina, eta jadanik badago eduki interesgarriak, gero eta jende aktibo gehiago dagoelako. Hasieran estekak baino ez ziren, baina elkarriketak ere hasi dira sortzen. Uste dut arrazoi nagusia atzeko atetik sartu diren komunitateak direla, ohiko on-line foroen eboluzio gisara erabiltzen baitute. Bila itzazu komunitateak eta sartu muturra iradokizunetan, eta G+k zure gogokoak hauteman orduko, ziur harrituko zaituela.

Oraindik orain miresgarria iruditzen zait harreman-zirkuluaren kudeaketa, erraza eta eraginkorra delako: ez da inoiz hain erraza izan gure mezuaren publiko objektiboa kontrolatzea. Gainera, Picasa zerbitzu zaharretik eratorritako argazkiak eroso administratzeko aukerekin batuz gero (zer esanik ez Android smartphone bat baduzu eta zeure G+ kontuarekin sinkronizatzen baduzu, telefonoko argazkiak zeure kontura automatikoki igo daitezten), Facebook jaun eta jaberren prestakuntzak berdindu edo garaitu egiten ditu.

Egia da Google ahaleginak eta bi egiten ari dela, eta segur aski ez zuen bere estimaziorik okerrenetan ere espero halako egoerara iristea. Apustua irabaziko ote duen, ordea, geroak esango.

Pablo Moratinos

Marketing online-aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués
+ DJ *Bizarr*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara
Zer behar duzu?

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM

“Gazte asko harreman koitalak edukitzera presionatuta sentitzen dira”

Hirusta Kolektiboko kide, 1992tik heziketa afektibo-sexualaren alorrean garatzen du bere lana. Zenbait ikastetxetan nerabeei zuzendutako saioak prestatzen ditu, informazio egokia jaso dezaten. Horrela, kulparik, lotsarik eta presiorik gabe bizi ahal izango dute sexualitatea.

- Zer da sexualitatea nerabeentzat?

Guk jaso dugun eredu berbera dute: genitala eta koitala. Neskek neurri handiago batean lotzen dute maitasunarekin, baina mutilentzat haragi kontu bat da.

Gure helburua da sexualitatea plazerrean oinarritzen dela zabaltzea, eta horretarako, ez ditugu soilik genitalak, gorputz osoa baizik.

Koitoak ez du zertan beti helburua izan behar; garrantzitsuak dira, esate baterako, maitasun adierazpenak.

Saiatu ere saiatzen gara helarazten sexualitate mota ezberdinak badaudela, norberaren gustuten araberakoak, ez bakarrik heterosexuala, koitala eta genitala.

- Nondik jasotzen dute informazioa?

Beharbada gaininformazioa edo desinformazioa dute. Dakitena

beraien artean hitz egiten dutena edo pelikuletan ikusitakoa da. Iturri horiek ez dira askotan egokienak. Hitz asko ikasi dituzte, klitorisa, esaterako, baina oso gutxi dakite zer den eta zertarako.

- Nesken eta mutilen rol tradizionalak bere horretan mantentzen dira?

Bai, rolak oso markatuta daude. Neskek sexudunak direla adierazten badute edo ikasteko gogoia edo sexu-harremanak badituzte, orduan fama txarra dute. Mutilek, berriz, zenbat eta harreman gehiago eduki, orduan eta gizonago dira.

Sexu-organoei dagokienez, neskek zikina den zerbait balitz bezala ikusten dute, ezkutatu behar dena eta erru sentimenduaren iturri dena. Mutilek, ordea, miesten dute euren zakila.

- Zein dira uste faltsu nagusiak? Hilekoarekin zaudenean maio-



Eli Olaskoaga, sexologoa

nesa egiten baduzu mozten dela, txortan zutik eginez gero ez da goela haurdun geratzeko arriskurik, ez eta hilekoa duzunean ere, zakilaren tamainak garrantzia handia duela plazerra eragiteko orduan...

Mutilek garrantzia handia ematen diote kantitateari (harreman kopurua...) eta neskek ere ematen hasiak dira (titi handiak...).

- Lehenengo harreman koitala gero eta gazteago izatea da joera. Zergatik?

Eredu koitala oso markatuta dutelako eta asko eta asko presionatuta sentitzen direlako lehenbailehen harremanak iza-

teko. Txostenek diotenez, 15 urteko nerabeen %20k harreman koitalak eduki ditu. Garai batean dena tabua eta errepresioa zen, orain beste muturrera pasa gara. Horrek arriskuak dakartza: haurdunaldiak, patologia sexualak (anorgasmia, eiakulazio goiztiarra...).

Ereduaren presioaren eraginez, orgasmo asko bilatzen dituzte, perfekzioa nahi dute eta horrek blokeoa ekar lezake. Arazoa da asko ez daudela oraindik prestatuta, eta horregatik harremanak sarri ez dira kalitatezkoak; hau da, mina dute, biharamuneko pilula hartu behar dute...

Honek guztiak arriskuak dakartza: haurdunaldiak, patologia sexualak (anorgasmia, eiakulazio goiztiarra...).

Guk zabaltzen diegu harremanak mila modutan eduki daitezkeela eta inportanteena konpartitzea dela.

- Zer aholkatzen diezu gurasoei?

Ez da prebenitzeko lan egiten. Pentsatzen badute sexualitatea ona dela, hori transmititu behar diete. Gurasoen artean eta seme-alabekin modu naturalean hitz egitea komeni da. Sexualitatea osasuntsua da, esperimintatzeko da, bizitzeko, betiere errespetuz.



La agrícola
J A T E T X E A

Eguneko menuak, asteburukoak, karta,
mota guztietako ospakizunak

Alzukaiatz, 1. IRUN Tel: 943 244 118



Lehiaketak

- **GRAFFITI ETA XAKE LEHIAKETAK.** Irungo Errepublikarren Elkartek antolatuta.

Noiz: Maiatzaren 17an 16:00etatik aurrera.

Non: Santiagoko pilotalekuan.

Arratsaldean zehar, Literatur Erakustaldia hainbat argitaletxeren eskutik.

Informazio gehiago:

www.asociacionrepublicanairunesa.org

Tel.: 669 075 423



Lana

- **EUROPAN LANA BILATU** nahi duzu, baina zenbait aholku eta gomendio faltan duzu?

www.gazteukera.euskadi.net (Mugi European

atalean).

- **ERIZAINZA LAGUNTAILEAK BELGIKAN.**

Deialdigilea: EURES eta Veilige Have

Lanpostuak: 6.

Tokia: Veilige Have Geriatrikoa, Aalter, Belgika.

OHARRA: Lehenengo elkarriketa Skyperen bidez izango da.

Baldintzak: EBko nazionalitatea eta Erizaintza laguntzaile titulua izatea.

Hizkuntza: ingelesa.

Epea: Apirilak 20

www.sepe.es/contenido/empleo_formacion/eures/



Ikastaroak

- **UDA IKASTAROAK: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.**

Matrikula edo/eta lojamendu beka: Erakunde antolatzaileek matrikula edo/eta loja-



mendu beka eskaintzen dituzte.

Epea: Apirilak 30

Harremana:

cverano@ehu.es



Bekak

- **IKERKETA BEKAK.**

Deialdigilea: Hezkuntza Ministerioa eta Zientzia eta Teknologiaarako Espainiako Fundazioa.

Zenbatekoa: 234,37 €. Campus Zientifikoak Espainiako hainbat unibertsitatetan egingo dira 2014ko udan.

Baldintzak:

- DBHko 4. mailako eta Zientzia eta Teknologiaetako Batxilergoko 1. mailako ikasleak. 2012-2013 ikasturteko batez besteko nota: 7,5.

Epea: Apirilak 26

Informazioa:

informacion@campus-cientificos



InterRail txartela

InterRail tren txartelak berrogei urte daramatza kilometroak egiten. Bartzuentzat gaztaroarekin loturiko bizipen ahaztezina, askatasunaren eta abenturaren bidaia.



gazteukera.blog.euskadi.net



Erasmus + webgune berria

INJUVE-K WEBGUNE BERRIA AURKEZTU ERASMUS PROGRAMARENTZAT.

Injuve gazteriaren institutuak *Erasmus+*: *Juventud en acción* webgune berria

aurkeztu du, besteak beste, Erasmus+ programan gazteei dagozkien ekintzen informazioa, ekintzak burutzeko jarraibideak eta ohiko galderen erantzunak azaltzen dituena.

Sartu eta informatu!! www.erasmusplus.injuve.es



Gazte-txartelaren 2014 Packa

Gazte-txartelaren 2014 Packa zuretzat prestatu dugu, eta jardura interesgarri ugari proposatzen dizkizugu bertan. Aisialdi gehiago, kultura gehiago, kirol gehiago... abantaila gehiago, astialdiaz gozatzeko eta, gainera, gutxiago gastatuta!

Eta oraindik Gazte-txartela ez baduzu, zeren zain zaude? Eska ezazu www.gazteukera.euskadi.net Gazte-txartela atalean.



zure enpresari internetetik zabalitzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net



ASTE SANTUA OIASSO MUSEOAN

Apirilak 17 - 11:00etan, meatze tren

Apirilak 18 - 11:00etan, bisita Ama Xantalengo nekropolira.

Apirilak 19 - 11:00etan, labar-pintura tailerra: Kobazuloetan margotzen. 17:00etan, bisita Ama Xantalengo nekropolira.

Apirilak 20 - 11:00etan, meatze tren.

Apirilak 22 - 16:30ean, Erroma eta zinea. Har ezazu parte laburmetraia batean.

Apirilak 23 - 11:00etan, labar-pintura tailerra: nekropolira. 16:30ean, Zesar eta Kleopatra: Kobazuloetan margotzen. Sortu zure laburmetraia Playmobilekin.

Apirilak 24 - 16:30ean, Tessellae, mosaiko tailerra.

Apirilak 26 - 11:00etan, bisita Ama Xantalengo



HITZALDIA EUSKARAZ

GAIA: Untzi Museoaren bilduma

NOIZ: Apirilaren 26an

NON: Irungo Gordailun

ORDUA: 12:00etan

Gipuzkoako Foru Aldundiak programa espezifiko bat abian jarri du Gordailuk barruan duen ondarearen berri emateko gizarteari. Hiru ibilbide interaktibo egingo dira eraikinean zehar funtzionamendua erakusteko, baita publikoarentzako hitzaldiak ere.



Apirilaren 30era arte

Erakusketa

Kabigorrrin

Beatriz Mendibururen argazki erakusketa.

Apirilaren 30era arte

Erakusketa

Atrezzo Dekorazioan

Atrezzon, Geltoki kalean, Nuria Cordobaren lan abstraktoak.

Apirilaren 20ra arte

Erakusketa

Laboral Kutxan

Alicia Cebrianen margolanak.

Apirilaren 16an

Hitzaldia

Argoak Elkarte

17:00etan, Ander Ugartemendia, gizarte hezitzailea eta misiolari laikoa. Gaia: Senufo herria, Afrikako antzinako etnia. Sarrera, doan.

Apirilaren 23an

Azoka

Zabaltza plazan

11:00etatik aurrera, liburua azoka.

Apirilaren 24an

Ipuin kontalaria

Udal liburutegian

19:30ean, Udal Liburutegian, hel-

duentzako ipuin kontalaria. Kontakizuna: *Juicio a los 50*. Inés Grimlanden eskutik (Argentina). Sarrera doan.

Apirilaren 30ean

Tailerra

Argoak Elkarte

17:00etan, sukaldaritza tailerra. Sarrera, doan.

Apirilaren 25ean

Antzerkia

Amaia KZn



20:00etan, K-Paz eta Los Rotos konpainiek *Amor en tiempos del corralito* obra antzeztuko dute.

Sarrera: 4, 10 €.

Apirilaren 25etik maiatzaren 18ra

Erakusketa

Amaia KZn

San Pedro eta San Martzial jaietako kartelen lehiaketan onartutako kartelen erakusketa.

Apirilaren 26an

Antzerkia

Amaia KZn

17:00etan, familia-antzerkia. PLATEA programaren barruan, "La pera Limonera" antzeztaldeak *Tortuga, la isla de Teodoro* ikuskizuna emango du gatzelaniaz.

Sarrera bakarra: 4, 10 €.

Apirilaren 26an

Dantza

San Juan plazan

18:00etatik 20:30era, Dantzaren Nazioarteko Egunaren barruan, hiriko zenbait talderen eta Irungo Kontserbatorioaren emanaldiak.

Apirilaren 27an

Kontzertua

Amaia KZn

12:00etan, Irun Hiria Musika bandaren emanaldia. Sarrera doan.

Apirilaren 29tik maiatzaren 11ra

Erakusketa

Laboral Kutxan

Susana Ferreiraren pintura akademiako ikasleen eskutik.

Apirilaren 29an

Irakurketa Kluba

Udal liburutegian

19:00etan, irakurketa kluba, Mertxe Tranchek zuzendua. Gaia: Laura Freixasena *Una vida subterránea*. Sarrera doan.

Apirilaren 29an

Opera zineman

Amaia KZn

19:00etan, Amaia KZko hitzaldiaretoan, Opera Zineman programaren barruan, *Roberto d'Evereux*. Sarrera doan.

Apirilaren 30ean

Musika entzunaldia

Amaia KZn

19:00etan, jaiotzaren mendeurrena



dela eta, Luis Marianoren musika-entzunaldia, Luis Mariano Lirika Elkartearen eskutik.

IRUN ZUZENEAN KONTZERTUA



NOIZ: Apirilaren 30ean

ORDUA: 19:30ean. CAFÉ IRUNen, "Irun zuzenean" barruan, MEK jaialdia, eta bertan: El Octavo Árbol, Tristan Crowley, The Inductions, Luke Armstrong, Sky Beats, Grises, Peachy Joke, Rockalean.

Sarrera: 15 euro.



Hotel Talaia
J A T E T X E A

ARITZ GONDO 69. 20305 VENTAS IRUN

Tel. 943 635 518 jatetxea
Tel. 943 629 433 hotela ***

info@hotelatalaia.com
www.hotelatalaia.com

**40 URTE BAINO GEHIAGOKO
ESPERIENTZIA ZURE ESKU**

**Landare eta lore eskaintza zabalena,
barrukoak, kanpokoak, baratzerako...**

- ✿ ESKAINTZA ZABALA
- ✿ PREZIO EZINHOBEEK
- ✿ KALITATEA
- ✿ ARRETA PERTSONALIZATUA

ZURE BEHAR GUZTIEI KONPONBIDEA EMATEN DIEGU

LANDAREAK

Barruko landareak,
lorategi eta terrazarako,
baratzerako, erreboiak,
haziak...

LORATEGIA

Loreontziak, dekorazioa,
ongarriak, lurak,
ureztaketa, produktuak,
erraminta...

DEKORAZIOA

Etxe eta lorategirako
dekorazioa, altzariak,
lurrinak, haurrentzako
dekorazioa...

LORADENDA

Ezkontzak, lore sortak,
saskiak, zentroak,
Bouquets, ospakizunak,
hiletak...

MASKOTAK

Txakurrak, katuak,
narrastiak, txoriak,
karraskariak, arrainak,
janaria, osagarriak...

MASKOTA ZONALDE BERRIA!

Gipuzkoako **itsas akuariorfilia** zentrorik handiena!

ZATOZ GOZATZERA!

